USURBILDARRAK DAUKATE.-

Usurbilgo kale nagusia
txamuntoko zapateria
guk daukagu txoko bat maitea
Euskal bilera agurgarria.
Han egiten dira modu onian
konpondu gauza guztiak,
tontuak ere aurkitzen dira
pozez beterik gure artian,

Usurbildarrak daukate
sagardo alkate (ber)
Irrintziz pozturik,
beldurrak azturik
ibiltzen gera goiz arte.

Sagardotxo maitea
edarik paregabea,
Agindu zazu munduan
arinduaz burua.
Usurbilgo kale.....

XOXUAK.-

Xoxuak galdu du mokoa
mokoa,xoxua,gaixoak
nola kanta,nola xirula,
nola kanta xoxuak?
Xoxuak galdu du begia
burua
lepoa
bizkarra
hegoa
iztarra
buztana
isatsa
... xoxua gaixuak
nola kanta,nola xirula
nola kanta xoxuak.

SAN SIMON ETA SAN JUDA.-

San Simon eta San Juda
Joan zen uda
Eta negua
Heldu da.

Ez baletor hobe
Bizi gera pobre
Eremu latz honetan
Ez gara hain onak henetan.

Ez dugu zaldirik
Ez gara zaldunak
Ez dugu aberik
Ez gara aberatsak.

Euskara guk dugu
Gu gara euskaldunak.

Euskara guk dugu
gu gara euskaldunak.

AMETS.-

Amets,bizitz amets,
gazte amets,beti amets.
Bildur gabe gure ametsa.
Eta denok illun
egi billa,pake billa,
argi billa,Jainko Billa.

Bizitzak miñ ematen du.
Negarrez jaio giñan.
Maitasun gabe gabiltza.
Baiñan guk,berriz,amets...
Gizonak zerbait bear du
bizi den mundu ontan.
Gezurrak miñ ematen du.
Baiñan guk berriz,amets...